



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Igandea
2007-12-09**

V.URTEA 1.309.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

TXULETAREN ERREINUA

TOLOSA Jende ugari izan da Zerkausian, bai bazkaltzen, bai eta afaltzen ere, bertakoak nahiz kanpokoak

GAUR Azken eguna izango du Txuletoiaren Festak; herri-kirol saioak izango dira eguerdian, Triangulon 6-7



Herenegun, sari banaketaren unean, Berrobiko pilotalekuan. B. MADINA

Mikel Goitia amezketarrak irabazi du Frontenis Txapelketa

BERROBI Bikoteka 53 eta banaka, berriz, 40 parte-hartzaile izan ditu aurtengo txapelketak 7



Goian, Julian erretegiko Matias Gorrotxategi; behean jendea bazkaltzen Zerkausian. ESTI EZEIZA

CAJA LABORAL

PRO

PROFESIONALAN
AUTONOMIAK
BENTZITAN

www.cajalaboral.com/pro

Zure negozioa denik eta
eraginkorrena izateko modua.


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Ilunbera zazpi astoren gainean



» Uzturretik

Felix Irazustabarrena

Astoak deskantsatzeko edo autobus gainean joango garen arren, zezen plazako bertso plazan egongo gara gaur zortzi, Alegiako autobusekook eta beste zazpi mila lagun.

Almodovarren *Matador* pelikulan antzera, sexu eta zezenketa ingredienteek osatzen dute aurten bertsoariaren Gipuzkoako Txapelketaren koktelak. Txapelke-

taren leloa G puntua izatea eta finala Ilunbeko zezen plazan jokatzeagatik gogoratuko dugu aurten.

Baina ez horregatik bakarrik, bertsozaleek inoiz ez bezela erantzun dutelako plazak betez, partaiden kopuru eta batez ere kalitate-arengatik, eta zergatik ez Ilunbe betetzen izanginen (izango garen) jendetzagatik.

Zazpi mila lagunetik gora hurbilduko da finala ikustera, eta batek baino gehiagok aipatuko du hori ez dela errealia, beste saioetara joaten ez den jende asko dagoela hor, egun bateko espektakulo hutsa dela... Eta? Ez da horregatik txarra hori.

Antzeko eztabaida ematen da urtero gaur bukatuko den Durangoko azokaren inguruan. Euskal literaturaz, literatura, disko-

gintzan... dena kontzentratzen da bertan. Kultura egarria edo eguberriak opari euskaldunak egitea ote da Durango? Hala balitz ere ez legoke gaizki.

Bakarra izatean dago arriskua nire ustez. Merkatu oso bat horren bueltan antolatzea, besterik ez egotea... Saiatu behar genuke horrela ez izaten, Durangon eta zezen plazan.

Bertsolaritzan, hori ezagutzen dut, leku askotan aurki daiteke G puntua. Urtean 1.400 saiotik gora erregistratzen ditu Xenpelar Dokumentazio Zentroak. Formatu txikiak, afariak, jaialdiak... Eta kontatzen ez diren ekimen asko dago. Alegian, ikastera baino gehiago gozamen bila, astero biltzen dira bertso eskolan, gutxienez bi edo hiru afari egiten ditugu urtean elkarrekin kantatzeko, beste

bizpahiru besteei entzuteko, festatan gure saioa Bulebarren, bertso paper lehiaketa eta enkarguzko bertso pila egin behar izaten dituzte zazpi astoren gainean bertso eskolak, blog badugu...

Hori ere bada Ilunbe, eta Ilunbe ere bada hori.

Banooooa, banooooa... dio finalerako azkena prestatu den iragarriak. Ni ere banoa, baino bukatu aurretik joan ahal ezin dutenaz gogoratu nahi dut. Kartzelan sartu berriak dituzte nerekin batera Ilunben egongo zirenak... ideia politiko batzuk defendatzeagatik eta herri eraikuntzan lana egiteagatik beste zezen plaza batzuetara eramantuztenak. Bertsozale finak asko eta euskaltzaleak guztiak. Zuentzako Ilunbetik gozamen puntuaren bila airera joango diren doinuak.

Z Zenbakia

119

■ **Urte.** Nikolas Ormaetxea *Orix*e jaio zen Orixan, duela 119 urte (1888an jaio zen). Itzulpengintzan lan handia egin zuen orexarrak, eta haren maisulana *Euskaldunak* poema izan zen. Herrian bertan bere izena eta izana oroitzen dituen monolitoa dute.

E Esanak



«Finalurrearekin ez nintzen gustura geratu; gauza batzuk ondo egin nituen, besteak gaizki»

«Nire helburua bertsoan gustura aritzea da eta ez dut txapelan gehiegi pentsatzen»

«Finalean ahal dudana onena ematera joango naiz, neure burua izango da aurkaririk gogorrena»

AITOR MENDILUZE
Bertsolaria



«Finalurrekoan oso lotuta sentitu nintzen, nire buruarekin borrokan»

«Ez nuen lortu benetan eman dezakedana ematen, ez dakit zer faktorek eragin duen»

«Helburua finalurrera pasatzea zen eta beraz gustura nago nahiz eta finalean ez aritu»

UNAI MUÑOZ
Bertsolaria

A Argazki zaharrak



Laskorain ikastola, 40 urte lanean

TOLOSA ■ Duela 40 urte sortu zen Laskorain ikastola, eta urteurren behar bezala ospatzeko jaialdi berezia antolatu zuten pasa den larunbatean Usabal kiroldegian. 1.300 lagun izan ziren emozioz beteriko jaialdia ikusten. Goiko irudietan atzera egin dezakegu Tolosako ikastolaren historian:

goian ezkerrean 1965. urtean Sakramentinoetako patioan ikasleak; behean ezkerrean, 1969. urteko apirillean *txaletean* ageri dira ikasleak, goian eskuinean 1969. urteko abenduan *txaletean*; erdikoan, 1970. ean, elizan daude Sakramentinoetan; behean eskuinean Pablo Gorosabelen. HITZA

E Eztabaida info

Txuleta Festa antolatuta dute aurten ere pasa den urtean zure Tolosan. Zein da zure iritzia festa honi buruz?

■ **Asier.** «Niri iruditzen zait horrelako ekimenak ez daudela gaizki, kanpora begira herriari izena ematen baitiote, eta batez ere, bertako jatekuentzat primeran etortzen direlako».

■ **Eneko.** «Egia esan, bai, kanpora begira publizitate bikaina da herriarentzat, eta horrelako zubi batean jendea bertan geratzea, eta kanpokoak etortzea esan nahi du».

■ **Amaita.** «Ba, niri ez zait hain herrikoia iruditzen festa hau. Izan ere, herrikoia izan nahi badu, hasteko denon poltsikorako izan beharko luke, eta 40 euro ez al da gehiegietxo?».

■ **-.** «Kanpokoentzat egindako festa. Ez duena ez hanka eta ez bururik. Gauza herriaren kanpoko itxura hobetzea da besterik».

Espainiako Auzitegi Nazionalak '18/98 auziko' 46 lagun atxilotzeko agindua eman du. Zer iruditzen zaizu?

■ **-.** «18. atxiloteta eta 5. kartzelal-

dia, gutxi egin dute berak bezainbeste herri honetan benetako bakera lortzeko, hori inork baino hobeto daki Rubalkaba jaunak..... Idazle fina, kalitate handiko politikoa eraman dute, horregatik eraman dute..... Joxe Mari ez da ETAko militantea, Euskal Herriaren aldeko militantea baizik... bestelakoan ez luke bere bizitza publikoa egingo.

■ **-.** «Ni ez nau harritzen; eta ez nau

harritzen ere euskal gizartearen gehiengoari bost axola izatea. Zer gatik ote?»

■ **Gari.** «Euskal Herriari eginiko beste eraso bat gehiago da, beste-rik gabe, eta beraiek, hau da, Espainiako Gobernuak ez diote garrantzi handiegirik ematen egindakoari; azken batean, gauza bakarra baitute buruan: Hauteskundeak. Zer dira ba atxiloteta batzuk, ezta?».

Hausnarketa eta eztabaida

» Iritzia

Aitor Usandizaga
Gipuzkoako EHNeren izenean

Hogeita hamar urte bete ditugun honetan, azken 10-15 urteetako nekazaritzaren gainbehera eta lanpostuen galera izugarria ikusirik, EHNEko nekazariak hausnarketa eta eztabaida prozesuan dihardugu urtarilean egingo dugun kongresura begira.

Ez da errazagurea bezalako sektore gutxitu batetik, gizarte osoan nekazaritzarekiko ardura edo nolabaiteko kezka hori sortzea. Eta are gutxiago, noski, egoeraren azterketa batetik hasi eta behar ge-

nukene nekazaritza ereduaren azalpena bitarteko guztia jendeak barnera dezan lortzea. Baina baserriarrok, gizarte honen barruan kokatzen dugu gure burua eta baita gure lana ere.

Gure gaur egungo egoeraren arrazoiak kapitalismoari lotuak daude, enpresa handi zein multinazionalei begira egindako politikaren ondorio dira, Europatik hasi eta gure administratioetatik jarraituak eman zaien politika horien eragin zuzenak. Horregatik, baserriak eta lehen sektoreak gizaritean galdu duen leku hori berreskuratzea dugu guk helburu. Bai gizariteak eta baita administratioek ere asko lagun gaitzaketa

uste dugu, baldin eta sektore honen gehiengo baten eskakizunei kasu egingo balitz. Beraz, EHNERi sektorearen ordezkaritza onartzetik hasi beharko lukete gure agintariak, eta elkarlanean gizarteratu baserri bizitzak duen garrantzia gizarte honetan, elikagaien sortzaile eta inguruaren kudeatzaile bezala. Beharrezkoa da sektoreak betetzen dituen funtzio horien errekonozimendu bat egitea.

Gure helburua kalitatezko elikagaiak sortzea da, gure uestez, lurrrari lotutako eta inguruaren errespetuan oinarritutako produktzio eredu batek ahalbideratuko lukeena soilik. Baina aldi bere-

an, baserriarrok, bizi baldintza eta errenta duinak lortu beharko genituzke saltzen ditugun produktu horietatik, horrek bakarrik bermatuko baitu sektore honen iraunkortasuna.

Nekazariok gure produktuei gutxieneko prezio batzuk jarri eta administratioak bere esku dituen baliabideak erabili beharko lituzke, produktua kontsumitzailearengana iristen denean prezio hori errespetatu dadin. Era berean, gizariteak kontsumitzaile bezala duen konpromiso hori azaldu beharko luke, bertako produktua kontsumituz.

Lurra da, ordea, gure kezka nagusia. EHNEk lurrrari lotutako nekazaritza baten alde egiten du. Onartezina da orain artean eman den nekazal lurren suntsitzea. Horregatik, administratioak lurra ba-

besteko neurriak har ditzan exijitzen dugu, sektore indartsu bat osatzeko gure lur onak behar ditugulako.

Goian aipatutako puntu guztiek dute garrantzia gure etorkizuneari, baina sektorearen zahartzeak errelebo faltaren gaia jartzen du mahai gainean. Izan ere, etorkizuna gazteon esku dago eta sektoreak lanpostu sortzaile izan behar du, erakargarria izan behar du, eta hori, nekazaritza eredu osoaren aldaketak bakarrik ziurtatu dezake.

Irekia dago eztabaida, beraz, abenduak 10 Urretxuko Gunen, abenduak 11 Lazkao mendin eta Zamalbidan, abenduak 12 Zarautz eta Itziarren, abenduak 13 Azpeiti eta Tolosan eta abenduak 14 Bergaran emango diogu jarraia eztabaidari.

Tolosako Udal elitista

» Iritzia

Alaitz Bilbao, Rebeka Calvo, Maria Garzia eta Eider Elduain

Aste honetan Txuleta Festa burutu da Tolosan, atzo bertan T5 telebista kate espainiarrean ikusi ahal izan zen, besteak beste. Joan de urtean ere antolatuta zuten Tolosako Udalak bai txuleta festa eta baita arrautzarena ere. Galerak izan zituzten festa hauek, ez nolana hikoak gainera, eta haleren aurten, denak gozo-gozo kiloko txuleta tragatzen. Txirriindulari-

tza profesionalerako teknifikazio zentro bat ere zabaldu berri du gure udaletxeak, "gure udaletxeak" edo... Gipuzkoako diputatziotik eta Espainiatik jaso dute horretarako dirua baina halere, Tolosako udalak 3,5 milioi euro jarri behar izan ditu.

Baina noski, denetarako ez da iristen eta ñauterik ate joka datozen honetan, herriko karrozen arazoak konpondu gabe jarraitzen du. Udalak ez dielako argitzen zenbat diru jarriko duen izorratu zaizkien karrozak konpontzeko, eta urte guztian hartutako lana

ongi eta babesean jaso ahal izateko toki egokirik jartzen ez dielako. Berdin txosnekin. Urtero eskatzen ari garen plastikoko gogorrek basoak, ekologikoak direnak, ateratzeko dirurik ez dagoela dio aurten ere Andoni Iturzaeta, jaik eta kultura" batzordeko buruak.

Gauza jakina da egun udaletxea osatzen dutenek, ez dutela inoiz txosnen aldeko ekimenik bultzatu, ez eta hauek txukun eta egoki antolatuta daitezkeen ahalagirik egin ere. Baina noiz arte jarraitu behar dute horrela? Ze lan egiten ari da Tolosako Udala herriari begira eta ber-

tako herritarren alde? Txuleta festa, txirriindulari profesionalentzat teknifikazio zentroa dena kanpora begira Tolosak eman beharreko irudia eraikitzeko, eta herriarentzat noiz?

Herritarrok antolatzen ditugun ekimenei babesa ematek hasi beharko luke udaletxe batek eta ez kanpoko euren laguntzat txirringitok montatzetik. Eudeleko lehendakaria eta berriki, Europako udalari eta eskualde kontseiluko kide izendatu dute Jokin Bildarratz alkatea. Horrelako ordezkaritza politikoa batek eredu hori eman al dezake bere herrian? Handikeria ugari baina herritarren esku. Euren buruei ezarri dizkieten soldatei begiratu besterik ez dago:

66.000 euro alkateak urtean, eta gainerako hiru zinegotzi liberatuek 50.000 eurotik gora. Eta gero, ez dago dirurik euren utzikieriak eragin duen karrozen kalteak ordaintzeko, eta ez dago dirurik baso ekologiko ziztrin batzuk ateratzeko.

Hemen eztabaida sakona dago, eta da, ia Tolosako udaletxeak zein irizpide erabiltzen dituen denon dirua dena banatzeko. Horrek tolosar orori dagokigu, ezin dugu beste aldera begiratu. Garai egokia izan daiteke gainera oraingoa, aurrerontuak onartuko baitituzte laster. Tolosar bezala, badugu zer esan eta zer eskatu. Ezin gara isilik geratu gehiegikeria honen aurrean.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



Ingurugiroa eta natura errespetatzen duen Samaniego ikastetxearen eraikin berria. H. BELLOSO

Eskelei buruz daukagun ideia guztiak aldatu nahi izan dute Samaniego ikastetxetik, eta horregatik, naturarekiko errespetuan oinarrituriko eskola ekologikoa, solidarioa eta osasuntsua eratu dute.

Samaniegoren natura nagusi



Umeek uraren zikloa errazago uler dezaten eginko horma-pintura. H. BELLOSO

NABARRI BELLOSO


Azken urteetan asko hitz egin da gure ingurugiroari buruz. Natura ez dugu behar bezala zaindu eta ondorioak ikasten hasiak gara jendak. Garzaz, adibidez, momentuak iritsi dala pentsatu dute Samaniego ikastetxean eta horren erantzura ikastetxe berria hasi da.

2005. urteko uztailearen 7an, lehen harriaren ipinketarekin, eraikin berriaren obrak hasiera eman zitzaion, egotzairen diseinuz Juan Labeyren arkitektoak arduratu zen. Eraikin zaharra txikia geratu zitzaion, eta bertik honenkin arazo hori konponduko dela pentsatzen da. Eraikitzeo prozesuan natura eta ingurugiroaren zainketa ardatz nagusiak izan ziren. Bi urtez lanean gogor ibili ondoren, azkenean urriaren 8an inauguratu zuten eraikin berria, eta bertan Tolosako alkateta eta Laralde Antolamenduko Saillburu den Esther Larrañaga izan ziren, bestek beste.

Eguzkia energi iturri nagusia

Eguzkiaren izpiak ahal den gehiena erabiltzen saiatzen dira. Eguzki-panel fotovoltaikoek energia elektriko garbia ekolizten dute, inongo kutsadurarik eragin gabeko. Panel hauek esker elektrizitateaz hornitzen dira.

Eguzki-panel termikoek eguzkiaren beroa pilatu egiten dute negatibo trankiluzatzen bidez. Gero horietatik ura pasatzen da, eta, beraz, berotu egiten da. Oraindik ezarri gabeko panel hauek,



Oraindik ezarri gabeko daude eguzki-panelak. Eguzkiaren izpiak erabiltzen dira argi indiarra lortzeko. Beroa ere erabiltzen dute eta berrak zirkulatuak joango dira. H. BELLOSO

Beroa eta ura erabiltzen dituzten hodiak pasabideen goiko aldeki joaten dira; atzeki plastikoz betar bat dute umeek behar izan ez dezaten erabiltzeko. H. BELLOSO

Euria egiten duenean ura telatuaz mantentzen da. Ureko estalkiak eraikina isolatzen laguntzen du, eguzki-izpiak gehiegi berotzea ekidinez. Arrain asko ekarri zituzten bertan biziak. Gainera ur gainerako landerreke behar duten elikagaiak eta itzala ematen diotek. H. BELLOSO

Ikastetxe ume guztiak naturaren inguruko marrakiaz egin dituzte eta hauek ikastetxearen hormetan jarri zituzten ikusgai. Kasu hoveletan, zaborbertzietan ipintzea aholkatzen digu. H. BELLOSO



Ikastetxe berrituaren jangelako irudi bat. H. BELLOSO

hainak laster hasiko dira horiek jar-zeko laneekin.

Hegoaldetik faxadetan dauden beirateak barnealdeko ura berotzeko balio dute. Beste fatxadak isolatzaileak dira, eta ez dute bero-ariak egiten uzten.

Eraikin barruan turbina bat dago eta honek birak ematen dituen korronte elektrikoak ekolizten da. Aentsortzaile bezala eragiten da ere.

Euria ura ueste dena

balio baliagarria
Zenituk otonozko den urari garrantzi asko eman nahi izan diote Samaniego ikastetxeak. Ikastetxeak tellatuta laua da eta euria egiten duenean ura bertan geratzen da piletan. 315 m³ko ur-andela handi baten gisara funtzionatzen da, hau da, litroko 315.000 litroko itzango baliatzen da bezala. Ur garbi mantentzen da eta bertan landurak eta arrainak bizi dira. Erabiltzen ez den ura biltzen dute eta komunetan eta urezatzeko erabiltzen da. Ureko estalkiak edifizioa isolatzen laguntzen du eguzki-izpiak gehiegi berotzea ekidinez. Tellatuta kapula isuratu duen panel bat dago eta bertatik eguzki argi sartzen da. Argi

hori eraikin barrutik doa, eta aluminioz egindako material baten bitartez, zenbait zona argitzeko erabiltzen da.

Material birziklagarriak

beteriko eraikina
Eraikiaren barnealdean dauden material gehienak, papera dela, igogailua dela, birziklagarriak dira eta ez-txikiok gainera. Zauri dagoeneko, ordo kudeatzailek dela ziztatzen duen agiri du, eta oin-tura, berriz, ur-pintura da. Bero-gailuak gas naturala erabiltzen da eta zoru-erretzaile baten azpian duden tuten bidez berotzen du.

Igogailu berde bat aukeratu dute edifizio bertan jaratzeko. Erabili diren materialen %97a birziklagarriak dira eta fabrikazio prozesuak duen energia kontsumoaren %20 baten murriztu da. Igogailu normal batek erabiltzen duen energiaren erdia kontsumitzen du eta auzo-erakunde oso urria da, marka gertak ez duela eta oliorik ez duela erabiltzen. Kabin birziklatzeko materialak inapundatu dago.

Ikastetxearen kanpoaldean baratza bat jarriko dute, eta tellatuta pilitutako urarekin urezatzeko

dute. Honek helburua ondorengos da, umeek ingurugiroa eta naturarekin lan egiten ikasiarazteko. Hala, landare ugari jarriko dituzte eraikin gurtzaren aldeetan. Hauxe itzala ematen dute eta haizearen indarretik babesteko oso baliagarriak dira. Sukaldeen eta kanpoaldean sortzen diren hondakin organikoekin, lurzoru-dagun dagoen humusaren antzeko osagai bat osatzen da.

Umeek natura lagunduz

Ikastetxe helburu
Boskaltzeo elikagai osasuntsuak kontsumituko dituzte eta horietako batzuk ikastetxeo baratza-keratzen osatuko dute. Murriztu-entzietan desberdinak jarri dituzte ikastetxean. Honekin elementu asko birziklatzea daude ikastetxe nahi da. Hordakinek ondo erabiltzen badira energia aurreratu eta sortu egin duteko, baliabide garrantzitsuak erabiltzen dira eta kutsaduraz gurtzen egiten da. Modu honekin gure planetak eta osasuntsu mantenduko dugu.



Zerkausia jendez gainezka izan da Txuletoiaren Festako azkenetan



Ardo bereziak dastatzeko aukera izan zuten bertaratu zirenek. ESTI EZEIZA



Jendearen aurrean, Zerkausian bertan, erre zituzten txuletak sukaldariek. ESTI EZEIZA



Postu guztietan, euskal produktuak erosteko aukera izan zuten hurbildutakoek. ESTI EZEIZA

Gastronomia »

Gaur amaituko da Txuletoiaren Festa aizkolaria eta harri-jasotzaileen erakustaldiekin

ERREDAKZIOA

Gaur amaituko da Txuletoiaren Festa eta atzo, aurreko egunetan bezalaxe, Zerkausia jendez lepo bete zen, bai bazkalorduan, bai afa-lorduan. Honetaz gain, ordea, beste zenbait ekitaldi ere antolatu zituzten.

Atzokoan ere, egun hauetan bezalaxe, Euskal Herriko lau txuleta erretgetirik ospetsuenetako sukaldariek mahaikideen aurrean erre zituzten txuletak: Casa Julianeko Matias Gorrotxategik, Casa Nicolaseko Pedro Ruizek, Burruntzi Erretgetiko Juanjo Pascualek eta Oruz Erretgetiko Javier Hualdek. Eskabide handiari erantzuna emateko, herriko beste honako lau jatetxek ere bat egin dute egun hauetan zehar ekimen honekin: Astelena, Botarri, Bete Alai eta Bide Bide jatetxeak eta Usabal eta Uzturpe sagardotegiak.

Txuletoiaren I. desafioa

Otorduz gain, atzo, Txuletoiaren I. Pilota Desafioa izan zen Beotibar Pilotalekuan. Pilotalekua erabat bete zen, eta jendea kanpoan ere

gelditu zen. Jaialdi honen barruan, aurrena, bigarren mailako lau t'erdiko finala jokatu zuten eta Diazek lortu zuen txapela, Argoteri 22-17 irabazi ondoren. Bigarren partiduan, Asegarce eta Aspeko lehen mailako pilotariak neurtu ziren: Olaizola II.a eta Begino, Titin III.a eta Goñi III.a ren aurka. Lehenengo irabazi zuten desafioa eta txuleta mordo bat izan zuten sari.

Norgehiagoka hauetaz gain, Beotibarren atzo Ramon Arbillagari omenaldia egin zioten. Arbillaga, Tolosako Asuncion Klinikako kudeatzailea izandakoa, joan den uztailan hil zen Hueskako Pirinioan erori ondoren.

Gaur, herri-kirolak

Gaur, Txuletoiaren Festaren barruan, bikotekako Urrezko Aizkolaria Txapelketa izango da, eguraldi ona egiten badu Trianguloan eta bestela Beotibarren, 12:00etan. Jose M. Olazagasti eta Jesus M. Mujika, Iñaki Azurmendi eta Jose Ugartebururen aurka ariko dira. Sei modalitate ezberdinetan lehiatuko dira (kolpeak, erloju kontrakoa, goitik behera eta horizontalean, abiadura eta erdifondoko frogak) eta ahalik eta azkarren 28 enbor moztzen dituenak irabaziko du.

Bestalde, Iñaki eta Inazio Perurera harri-jasotzaileen erakustaldi berezia izango da, 110 kilotik 260 kilotara bitarteko harriak jasoko baitituzte.

S Soka motzean

«Asko gustatu zait giroa; errepikatzea espero dut»

JAVIER IBARZABAL »

Txuleta zalea

ERREDAKZIOA

Eskualdeko nahiz kanpoko jende ugari hurbildu da egun hauetan, Txuletoiaren Festa dela eta ez dela. Horietako bat da Javier Ibarzabal bizkaitarra.

Zer duzu nahiago, arraina edo haragia?

Arraina, zaporez oso gozoak baitaude.

Txuleta asko edo gutxi egina?

Gutxi egina.

Gaurkoak zer iruditu zaizkizu?

Onak, zaporez oso gozoak zeuden.

Txuletak zein lagun izan behar du ondoan?

Bete bete asmatu dute pikilo piper gorriak jartzean.

Zaharraren txuleta edo gaztearena nahiago?

Zaharrarena, beti zaharrarena.

Txuleta, sagardotegian edo erretgetian?

Erretgetian.

Orohar, gustatu al zaizu Txuletoiaren festa?

Asko gustatu zait giroa eta zerbitzua. Errepikatzea espero dut.



NAIARA GARCIA



ESTI EZEIZA

«Nahi duguna da, jendeak, Tolosa txuletoiarekin lotzea»

MATIAS GORROTXATEGI ▶ Julian erretegioko sukaldaria

Gastronomia

Txuletoiaren Festako sukaldarietako bat da Gorrotxategi; hau oso gustura dago jaialdiarekin

ERREDAKZIOA

Tolosako lau erretegi ezagunetako sukaldariak dihardute lanean egun hauetan, Txuletoiaren Festan. Horietakoa bat da Matias Gorrotxategi (Tolosa, 1943) Julian erretegioko sukaldaria.

Zer moduz doa oraingo Txuletoaren festa?

Oso ondo, giro ikusgarria dago. Jendea gustura ari da ateratzen, eta hori da orohar daukagun sentazioa. Gure helburua da txuleta onak prestatzea, eta honetan arakinak ere lagundu digu.

Zein baldintza izan behar ditu txuletak onak izateko?

25 egun lehenago hildako behiaren izan behar dute, eta horrenbeste jende izanda, hori oso zaila da. Hala ere, lortu du Goya harategikoak. Txuleta ona izatearen baldintza garrantzitsuenetakoa bat hori da. Guk gero bere gozotasuna ematen diogu.

Nola egin behar dira txuletak?

Txuletak erre egin behar dira, eta ez egosi. Txuletak hiru textura ditu. Hala, parrillan jarritakoan, goitik gatza bota behar zaio eta beheko aldean erretzen zaionean buelta ematean zaio eta berriro gatza bota gainera. Honenbestez, beste aldean ere erretzen denean, ikusi behar da, barruko aldean kolorekoa eta beroadagoela. Honela, hiru textura horiek dituen txuleta ahora sartzen dugunean, eta murtsikatzean, xikortuaren zapore eta usain gozoa geratuko zaigu. Hori da txuleta on bat.

Gustura al zaudete hurbildu den jende kopuruarekin?

Bai, egunero dena beteta dago. Hasiara batean, esan ziguten 200 lagun inguru bilduko zirela otordu bakoitzean, baina azkenean, 300 inguru ari dira otortzen. Baina horrek ez du garrantziarik, kontua da

oso ongi ari garela, koordinazioa onak daukagula eta Divinus Katering lan bikaina ari dela egiten.

Jendeak zer esaten dizue?

Askok argazkiak ateratzen dizkigu eta jendea gustura ateratzen da. Lekua ikusgarria da eta gauean, argiekin... oso polita dago. Gainera, giroa ere paregabea da.

Normalean zuen erretegiaren parrilla berdina erabiliko duzue beti, hau aldatuta, alde nabaritzen al da?

Beti nabarmentzen da, baina hemen parrillak gure erretegiaren antzekoak dira. Haiek begiratuta egin dituzte hauek, horregatik, oso onak dira, eta gustura gaude hauekin ere.

Txuletauren teksturak zeintzuk diren azaldu duzu, baina batzuek gutxiago eginda eta besteek gehiago ere nahi izango dute.

Erretegiaren nahiz hemen egiten duguna da, gehiago egitea nahi duten puska moztu eta erretzea izan da. Kolorea izaten da dena, haragiak berez odol guztia kenduta izaten du, eta hor daukana, haragiaren beraren zuku da. Zuku horregatik, askok uste dute haragi hori ez dela ona, baina ez da hala. Haragia erditik moztuz gero kolorea kentzen zaio, eta zerbait galitzen du, baina oso ona geratzen da. Dena den, gazteei gutxi eginda gehiago gustatzen zaie, eta helduei berriz, erreagoa.

Joan den urtean egin zen lehen jaialdia, ordutik hona nabaritu al duzue eragina erretegiaren?

Bai, hau oso publizitate ona da, toki askotan ikusten da eta komunikabide ugarietan agertzen da. Honekin ez dugu dirurik irabazten, baina oso publizitate ona da. Gainera, guk nahi duguna da, Tolosa aipatzean, jendea txuletez gogoratzea. Tolosa txuletarekin lotzea oso garrantzitsua da.

Erretegiaren artean, txuletak prestatzeko garaian desberdintasun handiak al daude?

Jendeak dio baietz, baina orohar antzekoa da. Hemen bieskola dau dela esan daiteke, Julianekoa eta Nikolasekoa.

Goitiak irabazi du banakakoan, Frontenis Txapelketa



Herenegun jokaturako finaleko uneetako bat. IMANOL GARCIA

Berrobi ▶ Binakakoan, nesketan, Onsalo eta Gartzia renak irabazi dute; mutiletan, aldiz, Romerok eta Gomezek

ERREDAKZIOA

Berrobiko Frontenis Txapelketa baditu jada irabazleak. Hiru astetan zehar izandako partiden ondoren, herenegun arratsaldean jokatu zituzten finalak. 17:30ean hasi ziren norgehiagokak, orotara hiru izan ziren, eta lau ordu iraun zuen saioak.

Aipatu bezala, duela hiru aste hasi zen Jon Ander Izagirreraren omenezko txapelketa eta Gipuzko eta Nafarroako kirolariak hartu dute parte. Banaka 40 lagun lehiatu dira, bikotekakoan berriz, nesketan hiru bikote eta mutiletan, 50. Antolatzaileen esanetan, «urtero jende berdintsuak hartzen du parte, bost edo sei bikote bakarrik aldatzen dira».

Herenegun, lehendabizi nesken bikoteak atera ziren kantxara: Naiara Onsalo eta Lierni Gartzia-rena, Mireia Lezea eta Arantzazu Rodasen aurka. Hemen, lehenda-

biziko bikotea gailendu zen eta 30-20 garaitu zituzten besteak. Onsalo nahiz Gartzia-rena Berastegikoak dira eta ez da irabazten duten lehen aldia.

Neskenaren ostean, mutilen arteko finalei ekin zieten. Lehendabizikoa, bikotekakoa izan zen. Hau, esan daiteke joan den urtekoaren errepikapena zela, iaz ere bikote berak ailegatu baitziren finalera. Hemen, Xabi Romero eta Jorge Gomez, Mikel Goitia eta Jorge Belokiren kontra lehiatu ziren. Dena den, joan den urtean bigarren bikotea izan bazen garaila, aurtengo norgehiagoka honetan, 30-26ko emaitzarekin, lehen bikotea izan zen garaila. Azkenik, txapelketari amaiera emateko, Mikel Goitia eta Xabier Romero aritu ziren aurrez aurre. Hemen, 30-22ko emaitzarekin, amezketarra izan zen irabazlea. Joan den urtean ere iritsi zen hau finalera, baina ordukoan, Nikolas Artola izan zen garaila. Azken hau, aurtun ez du txapelketan parte hartu.

Antolatzaileek azaldukoaren arabera, «finaleko partida guztiak ere parekatuak izan ziren, eta orokorrean, nahiko maila ona agertu dute jokalariek».

Iragarki laburrak

LANA

• **Zerbitzaria.** Ordiziko Herrikoako zerbitzaria behar da. Deitu 943 88 75 98 telefono zenbakira.

SALGAI

• **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai

Zumardi Txikiaren parean (Santa Klaran). Bi logela, sukalde handia, ganbara eta berogailua ditu. Hormigoizkoa da. Uzturre aldera ditu bistak. Interesatuak deitu 665 70 86 35 telefono zenbakira.

Kulturen arteko elkar ulertzea bultzatzeko jardunaldiak datorren astean

Tolosa ▶ Jatorkin elkarteak antolatuta ditu saioak; abenduaren 12 eta 15a bitartean izango dira ekitaldiak

ERREDAKZIOA

Jatorkin elkarteak kulturen arteko harremanak sendotzeko helburuarekin jardunaldi batzuk antolatuta ditu, Eusko Jaurlaritzak eta Granadako Euroarabiar Fundazioaren laguntzarekin.

Jardunaldiak hilaren 12 eta 15 bitartean gauzatuko dira. Aurtengoan, gaur egun garrantzi handia duten bigai jorratuko dituzte. Alde batetik, bakarrik dauden etorkin adingabeak (Tolosako adingabeen zentrua) eta emakume magrebiar etorkinen egoera. Xede hau lortzeko, hau da, kultur auzitasuna bultzatzeko, ondorengo bi aditu izango dira hizlari: Lola Fernandez Valenzuela eta Pello Aierbe.

Fernandez kazetaria izateaz gain Granadako Euroarabiar Fundazioa kidea da eta adingabe etorkinen inguruko hainbat mahai-ingurutan parte hartu du. Aierbe berriz, Gakoa argialetxeko arduraduna da eta bakarrik dauden adingabe etorkinen gaiarekiko lotura handia du.

Jardunaldien xedea

Jatorkin elkartetik azaldu dutenez, Euskal Herria oso denbora gutxian etorkinen hartzaile izatera iritsi da. Jasotze honetan etorkinen gehiengo magrebiarra da. Talde honen inguruan, elkartearen iritziak, aurreiritzi ugari ditu jendeak. Jardunaldietan, besteak beste jorratuko diren puntuak hauek izango dira: zer iritzi dute etorkinek beraien integrazioari buruz? Zer da integrazioa? Fuzioa?



PASUS
Jatetxea • Edaritegia

- Eguneko menua
- Karta
- Dastatzeko menua
- Enpresa menuak
- Platerak eta razioak

Ernio bidea, 7 • Zizurkil
RENFE geltoki ondoan
Tel.: 943 249 775
www.pasusrestaurant.com

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaalde@tolosaldeko hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Bikotekako Urrezko Aizkolarari Txapelketa, 12:00etan, Triangulo plazan eguraldi ona egiten bada, bestela, Beotibar pilotalekuan.
- **Tolosa.** Ken 7 taldearen kontzertua hilaren 14ean Leidorren. Sarre-rak salgai daude 12 eurotan Leidorren bertan eta Kutxan (Servikutxa, Teletukxa eta www.kutxa.net).
- **Leaburu-Txarama.** Abenduaren 13an Zumarragako Santa Luzia azokara joateko irteera antolatuta dute. Izen-ematea, Txaramako kultur osasun gunean eta udal-txean.
- **Zizurkil.** Bigarren eskuko jostailuen merkatua abenduaren 20an izango da Joxe Arregi plazan. Salgai jarri nahi diren jostailuak abenduaren 14ra arte Villabonako gazte lokalean bilduko dituzte.

Zinema

- **Tolosa.** *Urtemuga festa*, gazte-txontzako filma, 17:00etan, Leidorren.
- **Tolosa.** *Tierra*, 19:30ean eta 21:30ean, Leidorren.
- **Villabona.** *Shrek 3*, 17:00etan, Gurean.
- **Villabona.** *Conversaciones con mi jardinero*, 19:30ean, Gurean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- Gaur**
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. 112.
 - **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- Bihar**
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.
 - **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Txistuaren eta danbolinaren hotsak

TOLOSA Atzo, urtero bezala, Sortzez Garbia eguneko kontzertu berezia eskaini zuen Tolosako Udal Txistulari Bandak. Ekitaldia meza nagusiaren ondoren egin zuten, Tolosako udaletxeko arkupeetan, eta bertara jende dezente hurbildu zen txistuaren eta danbolinaren musika entzutea. To-

losako Udal Txistulari Banda Iñaki Letamendiak zuzentzen du eta atzo orotara zazpi pieza jo zituzten. Goizean zehar tarteka euria egin zuen arren, kontzertuak irau zuen bitartean ez zuen euririk egin eta entzuleek lasai entzun zuten kontzertua, arkupeetik kanpo. **N. GARZIA**

A Agurrak



Urte askoan!

Martxelo. Gaur 50 urte. Zorionak eta muxu haundi bat etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa

2 sarrera pare Black Heritage Singers



abenduak 15
larunbata
21:00etan Tolosako Leidorren



2 sarrera pare

Ken 7

abenduak 14 ostirala
22:00etan
Tolosako Leidorren

